

5. kapitulua: IKASTETXEAK

Kapitulu honetan ikastetxeen funtzionamenduari buruzko zenbait alderdi aztertuko ditugu eta arreta berezia eskainiko diegu ebaluazioari buruzkoei. Ikasleen emaitza akademikoak ez ezik, ISEI-IVEIk azken urteotan eginiko ikerketa eta ebaluazioak ere baditugu, eta alderdirik garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu orri hauetan. Institutu honek interesatu guztien eskura jarri ditu txosten osoak bai eta beste proba batzuk honako helbide elektroniko honetan: www.isei-ivei.net

Beste atal batean gure autonomi erkidegoan bizi diren etorkinen bilakaera izango dugu aztergai. Ikastetxeen berrikuntzari buruzko zenbait aipamen ere egingo ditugu, eta kapitulu honi buruzko gainerako zenbakizko dokumentazioa eranskinetan txertatuko da.

Ikastetxeen antolamenduari dagokionez, azken urteotan ez da zuzendaritzako kargurik berritu, hortaz, ez dago horri buruzko datu berririk. Hau da, aurreko txostenean jasotako datuek baliozko izaten jarraitzen dute.

Nolanahi ere, zuzendaritzaren kontua eta izendapen prozedura eztabaidagai izan ditugu, LOCEk izendapen prozedura aldatzen duelako; horrela beraz, Ordezkaritza Organo Gorenaren zuzeneko aukeraketa sistema baztertu eta meritu sistema bat ezartzen du, eta meritu horiek hezkuntza erkidegoko ordezkariak eta Administrazioako kideak (autonomi erkidego bakoitzak erabakiko du proportzioa) baloratuko dituztela arautu du.

2003-04 ikasturtearen amaieran, Euskadiko Eskola Kontseiluari gonbidapena igorri zitzaion zuzendaritza eginkizuna arautu beharko luketen neurriei buruzko iritzia eman zezan. Horrela beraz, Batzorde Iraunkorrak dokumentu bat prestatu zuen, Balorazio eta Proposamenak atalean aztertuko duguna.

5.1. Hezkuntza berrikuntza

5.1.1. Sailaren lehentasunezko bost ildoak

Hezkuntza Sailak 2003-2006 hirurteko Plana definitu zuen, hezkuntza berriztatzeke lehentasunezko 5 ildoz osatutakoa eta zenbait programen bidez garatu beharrekoa. Ildo horien edukia www.berrikuntza.net atarian kontsulta daiteke edo baita ere Hezkuntza Saileko www.hezkuntza.net web orrian. Hauek dira:

Lehentasunezko 1. ildoak. Eskola inklusiborantz

- P1. Kultura arteko hezkuntza
- P2. Bizitzarako ezagutza eta trebetasunetako hezkuntza
- P3. Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza
- P4. Parekotasunerako hezkuntza ingurune kaltetuetan

P5. Hezkuntza premia berezietan ikaskuntza-oztopoak gainditzeko hezkuntza

Lehentasunezko 2.ildoak. Dimentsio soziokulturalak

- P1. Euskal dimentsioa
- P2. Europar dimentsioa

Lehentasunezko 3.ildoak. Hizkuntza normalkuntza eta eleaniztasuna

- P1. Hizkuntzen trataera bateratua
- P2. Hezkuntza eleanitza
- P3. Ikastetxeko hizkuntza proiektua
- P4. Ikastetxeko hizkuntza normalkuntza

Lehentasunezko 4. ildoak. Zientzia, teknologia eta gizartea

- P1. Hezkuntza zientifikoa
- P2. Informazio eta Komunikazio Teknologiak
- P3. Garapen iraunkorrerako hezkuntza

Lehentasunezko 5. ildoak. Ikastetxeen kalitatea eta hobekuntza

- P1. Eskola zuzendaritzak
- P2. Hobekuntza prozesuak
- P3. Hezkuntza kalitateko estandarrak

5.1.2. Hezkuntza berriztatzeko proiektuak

Hauexek dira, hain zuzen, ikastetxeek eta Sailak dituzten tresna nagusiak aipatu programa horiek garatzeko. Deialdia arautzen duen Aginduak (EHAA, 2003/09/01) baldintza batzuk planteatzen ditu, hona hemen garrantzitsuenak:

- Ikastetxe bakoitzak gehienez hezkuntza berriztatzeko bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu, agindu honetan ezartzen diren ezaugarrien arabera.
- Hezkuntza berriztatzeko proiektuak onetsi ahal izateko -urreko idatz-zatiak aipatu direnak salbu-, proiektuaren aplikazioak ukitzen duen urrats/ziklo/etapa/sail/organoko ikasle guztien %60ren partaidetza izan beharko dute gutxienez.
- Hezkuntza berriztatzeko proiektu hauek kanpoan geratuko dira: ikastetxe publikoetan ingelesa hasierako urratsetan (4-8 urte) ematen hasteari dagozkionak.
- Ikastetxe publikoetan onartzen diren proiektuak esku hartuko duten irakasleen lan-orduak batera gutxitu gabe gauzatuko dira.

Gauzak horrela, prestakuntzari buruzko deialdian gertatu ez bezala, oraingo honetan gehitu egin da hezkuntza berriztatzeko proiektuen kopurua 2001-02 ikasturtetik 2004-05 ikasturtera bitartean, hain zuzen, 513tik 622ra.

Aurreko sailkapen hori kontuan hartzen badugu, ohartuko gara lehentasunezko 2.ildoan (Dimentsio soziokulturalak) proiektu gutxi dagoela eta, era berean, ikastetxeen kalitate eta hobekuntzari buruzko 5. ildoan guztira ez direla 20 proiektu ere aurkeztu. Beste batzuetan erabili izan ditugun parametroak hartuz gero, honako taula hau aterako litzateke:

Hezkuntza berrizatzeko proiektuak, programen arabera. 2000-01 eta 2004-05 ikasturteak.

| <i>programa</i> | <i>2001-02</i> | <i>2004-05</i> |
|---|----------------|----------------|
| Hizkuntza prozesuak (3) | 72 | 257 |
| Arreta aniztasunari eta elkarbizitzarako hezkuntza (L1) | 100 | 103 |
| IKT (L4) | 138 | 121 |
| Kalitatea (L5) | 16 | 20 |
| Lehentasunezko programak | 326 (%64) | 501 (%81) |
| Metodologiak eta beste batzuk | 187 | 121 |
| Hezkuntza berrizatzeko proiektuak GUZTIRA | 513 | 622 |

Proiektuek oro har lehentasunezko ildoak eutsi diete (%80 inguru), aurreko ikasturtean baino gehiago (%64) gainera, eta bostetik batek ez dio dagokion ildoari heltzen.

Aipagarriak dira hizkuntza prozesuak, eta hauen barruan, ingelesa 8 urtetik aurrera irakasteko proiektuak (INEBI 8-12 eta INEBI 12-16), ingelesaren hastapenak edukien bidez irakastekoak eta hizkuntzen tratamendu bateratukoak.

Gainerako bi ildoak ("Eskola inklusiborantz" eta "Zientzia, Teknologia eta Gizartea") aurreko ikasturteko presentzia bera dute.

5.1.3. Hizkuntza normalkuntzarako proiektuak

Ulibarri programa arautzen duen 323/2003 dekretuak berritasun garrantzitsuak jaso ditu Hizkuntza Normalkuntzako proiektuetan parteko hartzeko baldintzei buruz:

- Norbere hizkuntz gaitasuna hobetzeari begira egin daitezkeen prestakuntza-saioetan aritzeko prest dagoen pertsonal ez irakaslea, administraziokoa eta kudeaketakoa, jantokikoa eta beste zerbitzu batzuetakoa, kontuan hartzea.
- Beren euskara-maila hobetu, zuzendu eta aberasteko ikastaroetan parte hartuko dute ikastetxeko irakasleek. Bestelako prestakuntza-ikastaroak ere euskaraz hartuko dituzte nagusiki, halakorik eskaintzen denean. Aurreko kapituluan ikusi bezala, ikastetxean bertan emango dira Irale programa, ikastaro laburrak (H,...), eta abar.
- Sailarenak ez diren ikastetxeen kasuan, aldiz, diru-laguntzaren bidez aurre egingo dio Sailak ordutan sortzen den gaitzari horri. "Diru-laguntza hori, kopuruz, herri-ikastetxeetan bezalako dedikazioa eskaintzeko behar

adinakoa izango da". Baina, aipatu bezala, ikastetxe publikoetarako prestatu den prozedura ez da betetzen.

2004ko apirilaren 21eko Aginduak (EHAA, 2004/04/29) 1.414.876 €-ko aurrekontua bideratzen du itundutako ikastetxeei dirulaguntza horiek emateko 2004-05 ikasturtean. Deialdian ikusi dugu 2004-05 ikasturtean 2001-02 ikasturtean baino proiektu gehiago dagoela, batik bat ikastetxe pribatuetan:

Hizkuntza normalkuntzako proiektuak. Ikastetxe parte-hartzaileak 2001-02 eta 2004-05 ikasturteetan.

| | 2001-02 | | | 2004-05 | | |
|-----------|------------------------------------|----------------------------|--------------------------------------|------------------------------------|-----------------------------|--------------------------------------|
| | <i>Ikastetxe parte-hartzaileak</i> | <i>Ikastetxeak guztira</i> | <i>Ikastetxe parte-hartzaileen %</i> | <i>Ikastetxe parte-hartzaileak</i> | <i>Ikastetxeak guztira*</i> | <i>Ikastetxe parte-hartzaileen %</i> |
| Publikoak | 238 | 502 | %47 | 254 | 506 | %50 |
| Pribatuak | 70 | 303 | %23 | 115 | 299 | %38 |
| GUZTIRA | 308 | 805 | %38 | 369 | 805 | %46 |

(*). Ez dira sartzen 1. zikloko Haur Hezkuntzako ikastetxeak, ezta ere L.H berezikoak.

5.2. Ikasleen ebaluazioa: emaitza akademikoak etapaz etapa.

5.2.1. Emaitza akademikoak Lehen Hezkuntzan.

Lehen Hezkuntzako ikasleek ikasturte honetan lortu dituzten emaitza akademikoak aurreko ikasturteetako antzekoak dira:

Promozioa Lehen Hezkuntzan, portzentajetan adierazita. 2002-03 eta 2003-04 ikasturteak

| | 1. zikloa | | 2. zikloa | | 3. zikloa | |
|---------------------------------------|-----------|-------|-----------|-------|-----------|-------|
| | 2002-03 | 03-04 | 2002-03 | 03-04 | 2002-03 | 03-04 |
| Helburuak beteta promozionatu dira | %87 | %88 | %81 | %82 | %76 | %76 |
| Helburuak bete gabe promozionatu dira | %9 | %9 | %16 | %15 | %19 | %20 |
| Ez dira promozionatu | %4 | %3 | %3 | %3 | %5 | %4 |

Honako hauek dira ikasgairik zailenak: matematikak, ingelesa, euskara eta gaztelania.

Kalifikazio positiboen portzentajea 5 ikasgairen arabera, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan:

| <i>Ikasgaiak</i> | <i>2002-03</i> | <i>2003-04</i> |
|-----------------------|----------------|----------------|
| Euskara | %84 | %85 |
| Gaztelania | %86 | %86 |
| Matematikak | %84 | %84 |
| Ingurunearen Ezagutza | %88 | %88 |
| Ingelesa | %83 | %84 |

5.2.2. Emaitza akademikoak DBHn.

EAEko eskola porrota 6 puntu gutxitu da azken ikasturtean, hau da, 2001-02 ikasturteko %20tik ikasturte honetako %14ra jaitsi da.


Bigarren hezkuntzako graduatuen konparazio bat egiten badugu gainerako autonomi erkidegoekin, ikusiko dugu EAEk emaitzarik onenak dituzten erkidegoen multzoan dagoela, hots, batez bestekoa (%76) baino bost puntu gorago (%81); eta igotzen jarraitu du 1998-99 ikasturteko lehen promoziotik, 1999-00an izan ezik, harako hartan %79raino jaitsi baitzen

2003-04 ikasturtean aplikatu da lehenbizi LOCEk jasotako promozio araudia, alegia, bi ikasgai gainditu gabe dituen ikaslea ikasturtea errepikatzen behartzen duena, horregatik ikasturtez ikasturte banatutako datuak aurkez ditzakegu oraingo honetan:

Promozioa DBHn, portzentajetan adierazita. 2002-03 eta 2003-04 ikasturteak

| | <i>Lehen zikloa</i> | | <i>DBH 3.</i> | | <i>DBH 4.</i> | |
|--|---------------------|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|
| | 1. 2. | | <i>02-03</i> | <i>03-04</i> | <i>02-03</i> | <i>03-04</i> |
| | <i>02-03</i> | <i>03-04</i> | | | | |
| Dena gaindituta dutela promozionatu dira | 53 | 70 58 | 50 | 54 | 59 | 64 |
| Ikasgai bat edo bi gainditu gabe promozionatu dira | 17 | 18 18 | 20 | 22 | 23 | 22 |
| Ikasgai bi gainditu gabe dituztela promozionatu dira | 15 | - 8 | 13 | 6 | - | - |
| Ez dira promozionatu | 15 | 12 15 | 17 | 19 | 18 | 14 |

Eskola porrotaren jaitsiera oso positiboa izan da azken ikasturtean, eta 5 puntu igo da titulu proposamenen portzentajea. Ildo beretik, oso positiboa da baita ere dena gaindituta dutela promozionatu direnen kopurua. Jarraian datorren grafikoan, emaitza horien eboluzioa ikusiko dugu DBHko 4. mailan:



Aipagarria da ikasle kopuru handi bat dagoela ikasgai bi baino gehiago gainditu gabe promozionatzen dena (%16 eta %14, 2. 3. mailan, hurrenez hurren), hala ere, azken kasu honetan behinik behin eta kuadroko emaitzak kontuan hartzen baditugu, horrek ez du esan nahi eskolatze egoera txarragoan daudenik.

Matematikak dira ikasgai zailena, %34ko eboluzio negatiboa erregistratu baita alor honetan 3. mailan; eta ez hain negatiboa (hala ere, ez ona) ingelesean.

Kalifikazio positiboa duten DBHko ikasleen portzentajea, ikasgaien arabera. 2002-03 eta 2003-04 ikasturteak.

| | Matematikak | | Atzerriko hizk. | | Gaztelania | | Euskara | | Natur zientz. | | Gizarte zientz. | |
|--------|-------------|-------|-----------------|-------|------------|-------|---------|-------|---------------|-------|-----------------|-------|
| | 02-03 | 03-04 | 02-03 | 03-04 | 02-03 | 03-04 | 02-03 | 03-04 | 02-03 | 03-04 | 02-03 | 03-04 |
| DBH 1. | - | 83 | - | 85 | - | 86 | - | 86 | - | 87 | - | 87 |
| DBH 2. | 70 | 74 | 72 | 75 | 74 | 78 | 74 | 78 | 75 | 79 | 75 | 78 |
| DBH 3. | 68 | 71 | 71 | 75 | 72 | 76 | 73 | 77 | 72 | 75 | 75 | 78 |
| DBH 4. | 77 | 81 | 81 | 84 | 83 | 86 | 83 | 87 | 83 | 85 | 84 | 86 |

5.2.3. Emaitza akademikoak Batxilergoan.

Azken ikasturtean aurrekoetan baino emaitza hobekak lortu dira. Aurreko txosteneko azken ikasturteko (2001-02) emaitzak erreferentziatzat hartzen baditugu, ikusiko dugu %2 hazi dela promozionatu direnen kopurua 1. mailan eta %3 batxilergoko 2. mailan.

| | Batx. 1. | | Batx. 2. | |
|--|----------|---------|----------|---------|
| | 2002-03 | 2003-04 | 2002-03 | 2003-04 |
| Dena gaindituta dutela promozionatu dira | 62 | 63 | 80 | 80 |
| Ikasgai bat edo bi gainditu gabe promozionatu dira | 25 | 25 | - | - |
| Ez dira promozionatu | 13 | 12 | 20 | 20 |

Deigarria da lurraldeen arteko diferentzia nabarmena dagoela hizkuntza ereduaren arabera, gainera, beste horrenbeste gertatzen dela ikusiko dugu ikastetxeek etapaz etapa eginiko ebaluazioaren datuak hartzen baditugu. Hartara, bada, 2000-01 ikasturteko kopuruei erreparatuz gero, ohartuko gara Gipuzkoako ikasleak -etapa honetan D eredia da nagusi- beste bi lurraldeetan baino %3 eta %4 gehiago promozionatu direla 1. eta 2. mailan hurrenez hurren.

Promozioa Batxilergoan, lurraldeen arabera. 2002-03 ikasturtea.

| | Batx 1. | | | Batx 2. | | |
|---|---------|---------|-------|---------|-------|-------|
| | Araba | Bizkaia | Gipuz | Araba | Bizk. | Gipuz |
| Dena gaindituta dutela promozionatu dira | 61 | 60 | 65 | 79 | 79 | 82 |
| Zenbait ikasgai gainditu gabe promozionatu dira | 24 | 26 | 23 | 9 | 10 | 9 |
| Ez dira promozionatu | 14 | 14 | 12 | 12 | 11 | 9 |

5.2.4. Eraitza akademikoak Lanbide Heziketa Berezituan

Eraitza akademikoak azken urteetako eraitzen antzekoak dira, zertxobait baxuagoak nolana ere; Bigarren Hezkuntzako gainerako mailletakoak baino hobeak dira, eta, era berean, eraitza hobeak erregistratu dira Goi Mailan Maila Ertainean baino.

Prestakuntza zikloetako eraitza akademikoak azken ikasturteetan.

| MAILA ERTAINA | MEPZ 1. | | MEPZ 2. | |
|--|---------|---------|---------|---------|
| | 2002-03 | 2003-04 | 2002-03 | 2003-04 |
| Dena gaindituta dutela promozionatu dira | 54 | 54 | | |
| Ikasgai bat edo bi gainditu gabe promozionatu dira | 22 | 22 | | |
| Ez dira promozionatu | 24 | 24 | 19 | 22 |
| Titulua lortu dute | -- | | 81 | 78 |

| GOI MAILA | GMPZ 1. | | GMPZ 2. | |
|--|---------|---------|---------|---------|
| | 2002-03 | 2003-04 | 2002-03 | 2003-04 |
| Dena gaindituta dutela promozionatu dira | 66 | 65 | | |
| Ikasgai bat edo bi gainditu gabe promozionatu dira | 17 | 16 | | |
| Ez dira promozionatu | 17 | 18 | 14 | 15 |
| Titulua lortu dute | -- | -- | 86 | 85 |

5.3. ISEI-IVEIk 2002tik 2004ra bitartean argitaratutako ebaluazio eta ikerketak

ISEI-IVEI 2001ean sortu bazen ere, bere lehen zeregina zera izan zen, argitaratu gabe zeuden aurreko ebaluazioei buruzko datuak aztertzea. Horrela beraz, "Lehen Hezkuntzako 1999ko ebaluazioa" txostena egin zuten lehenik, eta "Bigarren Hezkuntzako 2000ko ebaluazioa" txostenarekin jarraitu zuten gero.

Harrezkero, Institutu hau ebaluazio eta ikerketak egitera bideratu da, eta horien artean nazioartean garrantzitsuenak PISA eta TIMSS dira, nolana ere, ezin ahantz ditzakegu "Probaren hizkuntzaren eragina ebaluazioen emaitzetan" edo bullyingari buruzko inkestak besteak beste.

Lan horien laburpena aztertuko dugu, hau da, ezaugarriak, emaitzak eta hobekuntzarako proposamenak jorratuko ditugu.

5.3.1. Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa (1999).

Estatuko curriculum komuna neurtzeko Euskadin eginiko ebaluazioa da, horretarako, INCESE erakundeak (autonomi erkidego guztiek parte hartzen dute) emandako probak erabili direlarik.


Lagina Lehen Hezkuntzako 6. mailako 1.555 ikaslez osatu da eta sare eta hizkuntza ereduaren arabera estratifikaturik dago. Probak 1999ko maiatzean eta ekainean egin ziren.

Itema Erantzuteko Teoria (IET) metodologia erabili da puntuazioak kalkulatzeko.

Lehen Hezkuntzako 1995eko emaitzekin konparatzea ahalbidetzen du, Gaztelania, Matematikak eta Ingelesa ikasgaietan lortutako errendimendua neurtuz.

Emaitza nagusiak

Gaztelanian 1999an lortutako emaitzak 1995eko emaitzak baino zertxobait hobek dira, Matematiketan zertxobait txarragoak eta Ingelesean ez dago 1995eko emaitzekin konparatzeko daturik.




Aldagai batzuen arabera emaitzak

A) Gaztelania

A eta B eredu itunduen eta gainerakoen arteko desberdintasunak ezin daitezke azaldu gurasoen ikasketa maila kontuan hartuta. Desberdintasunek bere horretan dira aldagai hau kontrolatu ondoren ere.


Ikasleen portzentajea gurasoen ikasketen arabera



b) Matematikak

Desberdintasun bakarrak sarearen arabera dira, eta sare itunduan publikoan baino emaitza hobek erregistratu dira. Izan ere, sare itunduan dauden gurasoek ikasketa maila handiagoa dute eta sare honetako ikastetxeetako irakas-orduak sare publikoak baino nabarmen gehiago dira gainera.

Aldagai horien eragina kontrolatuz gero, desberdintasuna desagertu egiten da.



C) Ingelesa

Kasu honetan ere desberdintasunak sarearen arabera dira (itundua eta publikoa), eta badirudi arrazoia gurasoen ikasketa mailan datzala; hartara, sare itunduan dauden gurasoen ikasketa maila handiagoa da, eta gainera sare honetako ikasleek eskola orduz kanpoko ingeles eskola

gehiago hartzen dituzte. Aldagai horien eragina kontrolatuz gero, desberdintasuna desagertu egiten da.

Hobetzeko proposamenak

Txostenak ez du gomendio zehatzik aipatzen, hala ere, argi geratzen dira estratu eta sare desberdinen errendimenduari buruzko azalpenak.


5.3.2. Ingelesari buruzko ebaluazioa DBH 2.n (2001).

DBH-ko 2. mailako 2.142 ikasleri 2001ean eginiko ebaluazioa deskribatzen duen txostena da.

Lagineko ikasleak

| | <i>A eredu</i> | <i>B eredu</i> | <i>D eredu</i> | <i>Guztira</i> |
|-----------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Publikoak | 273 | 237 | 369 | 879 |
| Itunduak | 533 | 314 | 416 | 1.263 |
| Guztira | 806 | 551 | 785 | 2.142 |

IET puntuazioa, ondoko maiztasun honen arabera: irakasleak eskolan ingelesez hitz eginarazten die



DBH-ko 2. mailako ikasleek Ingelesean lortutako errendimendua eta maila bakoitzean eskuratu dituzten oinarriko gaitasunak zehazten dira.

5.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazioa (2000).

Irakasgai hauek neurtu ziren:

- Euskara eta literatura
- Gaztelania eta literatura
- Matematikak
- Matematika problemak
- Natur Zientziak


Lagin hau DBH-ko 4. mailako 2.258 ikaslez osatu zen eta sare eta hizkuntza ereduaren arabera estratifikaturik dago.

| | A eredia | B eredia | D eredia | Guztira |
|-----------|----------|----------|----------|---------|
| Publikoak | 349 | 193 | 428 | 970 |
| Itunduak | 653 | 291 | 344 | 1.288 |
| Guztira | 1.002 | 484 | 772 | 2.258 |

INCESE erakundeak (autonomi erkidego guztiek parte hartzen dute) emandako probak erabili dira, Euskara eta Literatura ikasgaiak izan ezik.

Emaiza nagusiak


a) Euskara



Hauxe da ereduaren arteko mailak konparatzeko eginko azken ebaluazioa. A eta D ereduaren bitarteko puntuazio-heina soilik ikus daiteke.

b) Gaztelania


Euskarako puntuazioarekin konparatzen badugu, Gaztelaniako hizkuntzan ereduaren artean desberdintasun askoz txikiagoak daudela ikusiko dugu.



c) Matematikak

Txosten honetako matematika emaitzek adierazten dute DBHko eduki blokerik ahulenetako bat geometria dela, eta, izan ere, halaxe konfirmatu izan da geroago.


■ Matematiketako emaitzak eduki-blokeen arabera (0-100 eskalan)



d) Natur Zientziak

Eduki blokeen araberako ebaluazioari erreparatuz gero, ohartuko gara DBHko 4. mailako ikasleen emaitzarik txarrenak Lurra Unibertsoan blokean biltzen direla.

■ Emaitzak eduki-blokeen arabera



5.3.4. Bizikidetasuna eta hizkuntzak hezkuntza sisteman

“Kasu-azterlan” ez ari gara bi kasuotan. Metodologia honen helburua ez da datu estatistikoak eskaintzea, ezpada gure hezkuntza sisteman eragina duten fenomeno esanguratsu batzuk ikertzea. Kasu-azterlan hauek honako elementu hauek konbinatzen dituzte: zuzeneko behaketa eta galdeketak, elkarriketak, baita ere errendimendu probak, baina, beti ere, “kasuen” araberakoak.

Bizikidetasunari buruzko azterlana

Hona hemen azterlanaren helburuen laburpen bat: “Azterlan honetan bizikidetasuna eraikitzeke moduari arreta jarri nahi izan zaio. Halaber, finkatutakoan, egoera desberdinen aurrean nola mantendu eta garatzen den aztertuko da. Horretarako, alderdi horretan arazoak izanda, erantzun sistematikoa eman duten ikastetxeetako esperientziara jo da. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gai horretan lanean diharduten ikastetxeen adibide txiki, baina esangarria dira. Xede horrekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak antolatutako “Bizikidetasunerako heztea” programaren baliabideak eta orientabideak aprobeztatzen ari dira.

Ikerketa-metodologia bezala kasuak aztertzea hautatu dira. Hala, ikastetxe bakoitzaren egoera argitu ahal izango da. Ildo horri jarraiki, ekintza-baliabideak deskribatu dira. Halaber, egoera, erabaki eta estrategien ikuspuntu alderatua lortu da, hiru ikastetxe aztertu baitira. Ondorioak oinarritzeko iturriak berriemaile kualifikatuei egindako elkarriketak, galdeketak, dokumentu-analisia eta, neurri txikiagoan, zuzeneko behaketa izan dira. Ondorioen aurrerapen modura honakoa aipa daiteke: ikastetxe bakoitzak diagnostikotik abiatuta neurri-multzoa hautatzen du, nahasketa pertsonalizatua, hain zuzen ere. Ikasleekin, familiekin eta komunitatearekin lan egiteko orduan, elementu bateratzaile eta eraikitzaile bezala bizikidetasuna berriz pentsatzera daraman oinarritzko jarrera dago”.

Hizkuntzei buruzko azterlana

Azterlan honek EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mota adierazgarrietako batzuetan dagoen hizkuntzen egoera deskribatu nahi du, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzaren kudeaketa ikasleak lorturiko emaitzekin erlazionatzen duten funtsezko elementu batzuk ezagutzeko asmoz. Beraz, asmoa ikastetxeak hartutako erabaki ezberdinek eskola hizkuntzen ikaskuntza-mailan daukaten eragina zehaztea da.

Azterlan honek agertzen dituen galderak honakoak dira:

- Zeintzuk dira ikastetxeak lortu nahi dituen euskara, gaztelania eta ingelesari buruzko ikaskuntza-helburuak?
- Zein planteamendu adierazten dute ikastetxeak hizkuntzen gainean egindako dokumentuek?
- Zein baliabide erabiltzen dute ikastetxean, hizkuntzen helburuak lortzeko?

- Zein da tartean dauden pertsonen baliabide erabilgarriari buruz duten iritzia?
- Zein metodologia agertzen du ikastetxeak hizkuntza arloen helburuak lortzeko?
- Nola erabiltzen dituzte ikastetxeko ikasleek euskara, gaztelania eta ingelesa?
- Zein estrategia darabil ikastetxeak ikasle etorkinei hizkuntzak irakasteko?
- Zein da ikastetxean burutzen den trataera, ikasle etorkinen familia hizkuntzari eusteko?

5.3.5. "Probaren hizkuntzak ebaluazioen emaitzetan duen eragina"

Ikerketa honen helburua irakasteredu elebidunetan eskolatutako ikasleei errendimendu probak aplikatzean erabiltzen duten hizkuntzak duen eragina, bere famili hizkuntzaren arabera, zein den zehaztea da. Hau da, ea bere errendimendua noiz den hobea, probak etxeko hizkuntzan egitean ala irakasteko hizkuntzan egitean.

Probaren hizkuntzaren auzi hau nazioarteko probak aplikatu behar izan zirelako sortu zen. Nazioarteko proba horiek mundu mailako konparazio bat egiteko prestatu ziren eta gure ikasleen errendimendurik ahalik eta handiena lortzera bideraturik zeuden. Proba hauek hizkuntza karga handia dute eta probaren hizkuntza ondo ezagutzea ezinbestekoa da errendimendu ona lortzeko.

Momentuko nazioarteko ikerketak errendimendu probetan *ikasleen hizkuntza nagusia* erabiltzea gomendatzen zuen.

Kanada bezalako herrialdeek, gurea bezalako murgilketa programak dituztenek, ikaslearen ama hizkuntza erabiltzen zuten PISA probak egiteko, nahiz eta frantsesa izan irakas-hizkuntza, nolana ere, emaitza bikainak erdietsi zituzten.

Murgilketa programetako ikasleek (B eta D programetako ikasle erdaldunak) bigarren eta hirugarren hizkuntza ikasten ari dira, baina ez dute jatorrizko hiztunen adinako maila inola ere.

Gure hezkuntza sistemako heziketa hizkuntza programaren edo ikaskuntza arloaren arabera aldatzen da. Esaterako: gaur egun, bigarren hezkuntzako 30etik gora ikastetxetan ikasleek ikasgaireren bat ingelesez ikasten dute (Musikatik hasi eta Gizarte Zientzietaraino), beste batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk, berriz, euskaraz.

Azterlan honek agerian utzi zuen bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasten ari diren ikasleek emaitza hobekak lortzen dituztela proba famili hizkuntzan (hau da, ondoen ezagutzen duten hizkuntzan) egiten dutenean. Nolanahi ere, azterlan honek zera gomendatzen du, ikaslea ikasten ari den hizkuntzaren ebaluazioa egiten jarraitzea oso garrantzitsua delako hizkuntza baten ikaskuntza prozesuan.

5.3.6. Nazioarteko ebaluazioa PISA 2003

Euskal hezkuntza sistemak nazioarteko ebaluazio garrantzitsu honetan parte hartu izana gertaera mugarrria izan da arrazoi askorengatik. Izan ere, Euskadik lehen aldiz parte hartu zuen ofizialki mundu mailako ebaluazio batean, prestigiorik handieneko ebaluazioan alegia. Hortaz, erronka handia izan zen ISEI-IVEIrentzat eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat ez bakarrik maila profesional, eta ekonomikoan, baita ere antolamenduari zegokionean.

Era berean, honako hau "funtsezko gaitasunak" aztertzen diren lehen aldia da. Hortaz, PISA ez da curriculumen ebaluazio bat, kontrara, helburu nagusia da 15 urteko ikasleek bizitzarako duten prestaketa-mailari buruzko informazioa izatea, alor bakoitzean (matematikak, irakurketa eta zientziak) behar diren ezagutzak ebaluatzen zaizkielarik.

Gainera, ebaluazio berezi bat da, marko teoriko oso garatua duena eta eragin handia sortu duten txosten batzuk barne hartzen dituen, txosten horiek ELGAko herrialdeen hezkuntza politikari buruzko informazioa ematen dutelako.

Herrialde parte-hartzaileak

ELGAko herrialde guztiak (29) gehi 11 "partner" eta erakunde azpi-estatalak, non Euskadi barne hartzen baita.

Lagina

Sare eta hizkuntza-ereduaren arabera banatua:

| | <i>A erdua</i> | <i>B erdua</i> | <i>D erdua</i> | <i>Guztira</i> |
|----------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Publikoa | 256 | 365 | 881 | 1.502 |
| Itundua | 1.019 | 636 | 752 | 2.407 |
| Guztira | 1.275 | 1.001 | 1.633 | 3.909 |

Emaitza nagusiak laburbilduta:

- Lau funtsezko gaitasunetatik, Euskadi 3tan kokatzen da ELGAko batez bestekoan:
 - Matematikak
 - Irakurketa
 - Problemen ebazpena
- Ezagutza zientifikoari dagokienez, ELGAko herrialdeen batez bestekoa baino beherago gaude.
- Gure sistemak ekitate handia erakusten du: dispertsio txikia dago ikasleen errendimenduan.
- Errendimendu baxuko gure ikasleen kopurua ELGAkoa baino txikiagoa da, baina bikaintasuna falta zaigu, hau da, matematiketan bikainak diren oso ikasle gutxi dugu.

Probaren hizkuntza

- PISA probak "hizkuntzazkoak" dira batik bat.
- Euskadiko ikasleek famili hizkuntzan egin zituzten probak. Zehazki esateko, %15ek euskaraz egin zuen eta gainerakoek gaztelaniaz.
- Aldagai hau funtsezkoa da errendimendurik onena lortzeko hezkuntza sistema elebidunetan edo eleanitzetan.

Bi hizkuntzen jatorrizko hiztunek PISA ebaluazioan lortu dituzten emaitzek zera adierazten dute:

- Bigarren hizkuntzan ikasten duten eta proba ama-hizkuntzan egin zuten ikasleak ez dira kaltetuta gertatu; izan ere, haien errendimendua beste hizkuntzakoen maila berekoa izan da.
- Transferentzia zuzena dago bigarren hizkuntzan ikasitako ikaskuntzak lehen hizkuntzara pasatzean.
- Gaztelaniaz hitz egin eta euskaraz ikasten duten ikasleek egoki adierazten dituzte beren ezagutzak beraientzat nagusia eta familiakoa den hizkuntza horretan.

Azterketa-eremu nagusiko sailkapena: Matematikak

Matematikak izan ziren PISA 2003 txosteneko azterketa-eremu nagusia.

Nola neurtzen den PISAn matematikako prestakuntza

PISAREN erronka nagusia da, alde batetik, matematika-ezagutzaren azpiko arloetatik datorren informazioa eta, bestetik, esparru horretan deskribatutako gaitasunak konbinatuko dituen oreka bilatzea, Matematika alorreko ezagutza gero eta handiagoa deskribatuko duten mailak edo eskalak eratzeke xedez.

Definizio hori ebaluaziorako baliabide bilakatzeko, ikasleen matematika alorreko ezagutzak eta trebetasunak hiru dimentsioren arabera zehazten dira:

- Planteatutako problema eta galdera desberdinetan inplizitu diren matematikako **edukiak**.
- Behatutako fenomenoak eta dagokien problemak ebazteko matematika-ezagutza erlazionatzeko aktibatu behar diren **prozesuak**.
- Suspergarri gisa eta informazioaren aurkezpen moduan erabiltzen diren **egoerak eta testuinguruak**; planteatutako problema hauetan ebatzi behar da.

Edukiak

Normalean eskola curriculumean Matematika eduki-multzoetan antolatuta egon ohi da eta nabarmena da kalkuluari eta formulei ematen zaien garrantzia. Alabaina, matematika-prestakuntzak baliagarri izateko egungo munduaren konplexutasuna islatu behar du. Helburu horrekin, PISA

2003k lau eduki multzo handirekin erlazionatutako lau azpieskala garatu ditu: aldaketa eta erlazioak, espazioa eta forma, probabilitatea eta kantitatea. Azpieskala horiek curriculumeke eduki asko barne hartzen dituzte eta matematika trebetasun zabal eta ugariak lantzen dituzte. Hona hemen nazioarteko konparaketa.

| <i>Herialdea</i> | <i>Bat.b.Adier*</i> |
|-----------------------|---------------------|
| Hong Kong- Txina | 550 ↑ |
| Finlandia | 544 ↑ |
| Korea | 542 ↑ |
| Holanda | 538 ↑ |
| Liechtenstein | 536 ↑ |
| Japonia | 534 ↑ |
| Kanada | 532 ↑ |
| Belgika | 529 ↑ |
| Macau-Txina | 527 ↑ |
| Suitza | 527 ↑ |
| Australia | 524 ↑ |
| Zeelanda Berria | 523 ↑ |
| Txekiar Errepublika | 516 ↑ |
| Islandia | 515 ↑ |
| Danimarka | 514 ↑ |
| Frantzia | 511 ↑ |
| Suedia | 509 ↑ |
| Austria | 506 |
| Alemania | 503 |
| Irlanda | 503 |
| Euskadi | 502 |
| ELGAko batez bestekoa | 500 |


| <i>Herialdea</i> | <i>Bat.b.Adier*</i> |
|-------------------------|---------------------|
| Eslovakiako Errepublika | 498 |
| Norvegia | 495 ↓ |
| Luxenburgo | 493 ↓ |
| Polonia | 490 ↓ |
| Hungaria | 490 ↓ |
| Espainia | 485 ↓ |
| Letonia | 483 ↓ |
| AEB | 483 ↓ |
| Errusiar Federazioa | 468 ↓ |
| Portugal | 466 ↓ |
| Italia | 466 ↓ |
| Grezia | 465 ↓ |
| Serbia eta Montenegro | 437 ↓ |
| Turkia | 423 ↓ |
| Uruguai | 422 ↓ |
| Thailandia | 417 ↓ |
| Mexiko | 385 ↓ |
| Indonesia | 360 ↓ |
| Tunez | 359 ↓ |
| Brasil | 356 ↓ |
| Erresuma Batua* | 508 |

Bat.b.: Batez bestekoa; (*)ELGArekiko adierazgarritasun maila

Euskadi eta ekitatea

Txosten honetako emaitzarik aipagarriena Euskal Hezkuntza Sistemaren “ekitate” maila izan da. ELGAko herrialdeen artean geuk daukagu ikaslerik onenen eta txarrenen arteko errendimendu diferentziarik txikiena (ekitate erlatiboa).

Ikasle onenen eta txarrenen arteko puntuazio-aldea (ekitatea). Matematikak.



Bestalde, PISAko mailetako 1. mailan eta 1.aren azpiko mailan egoera "duinera" iristen ez diren ikasleen kopurua %16koa da, hots, txikienetakoa (ekitate absolutua).

Errendimendu konpaktuko sistema bat daukagu (ikasleen %74 errendimenduaren maila ertainetan kontzentratzen da), hots, errendimendu txikiko ikasle gutxi dugu, baina, era berean, gutxi dira bikaintasun mailara iristen direnak.

Gure hezkuntza sistemaren beste ezaugarri batzuk

Hona hemen PISA txostenetik atera daitezkeen beste ondorio garrantzitsu batzuk:

- ELGAko herrialdeen artean, Euskadin erregistratu da ikastetxeen arteko errendimendu diferentziarik txikiena
- Sareen (itundua-publikoa) arabera, ikasleen indize sozioekonomiko eta kulturalaren diferentzia oso txikia da gure hezkuntza sisteman, PISA txostenean parte hartu duten herrialdeen artean txikienetakoa alegia.
- Euskal ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalak errendimenduan duen eragina ELGAko batez bestekoa baino txikiagoa da, hau da, Kanada edo Finlandiaren parekoa.

Hobetu beharreko alderdiak

a) Zientzi ezagutza

Nolanahi ere, badira zenbait alderdi ilun PISA ebaluazioaren emaitzetan.

Euskadik Zientzi ezagutzan lortu duen errendimendua ELGAko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da eta ebaluatutako gainerako arloetan lortutako errendimenduetatik urrun dago.

Hezkuntza Saila arlo honetako errendimendua hobetzeko neurriak aztertzen ari da.

b) Ikastetxeen autonomia

PISA txostenetik ondoriozta daitekeenez, ikastetxeen autonomian ere badago zer hobetu.

Ikastetxe parte-hartzaileetako zuzendariei zenbait arlotan duten erabakimenagatik galdetu zaie, eta haien erantzuna kontuan izanik hauxe ondorioztatu daiteke:

Gainerako herrialde parte-hartzaileen aldean, sare publikoan, Mexiko, Grezia, Luxenburgo, Uruguai, Turkia, Portugal eta Alemaniak soilik dute guk baino autonomia txikiagoa. Gainera, aipatu herrialdeak ez dira hain zuzen ere errendimendurik onenak dituztenak, hartara, bada, korrelazio positiboa dago ikastetxeen autonomiaren eta errendimenduaren artean. Sare itunduko emaitzak ere ez dira onak.

c) Errendimendua ikasleen sexuaren arabera

PISAk ebaluatutako 4 arlotatik 3tan mutilek neskek baino puntuazio baxuagoa lortu dute, irakurketan 45 puntuko ezberdintasuna izan dutelarik. Horrek esan nahi du sexuen araberako errendimendu diferentzia handiena duten herrialdeen artean gaudela. Horrela beraz, arazo horretaz hausnartu beharko litzateke.

5.3.7. Matematikaren eta zientzien ebaluazioa DBHko 2. mailan

Euskadik bere kabuz parte hartu du IEA-k sustatutako ebaluazio honetan, Espainiak bertan behera utzi zuelako ikerketa probak hasi baino lehentxeago.

TIMSSek curriculumak ebaluatzen du funtsean, zeren probaren eduki guztiak parte hartzen duten herrialdeetako Matematikaren eta Zientzien curriculumetan oinarrituta garatzen baitira, nazioarteko aditu-talde batek aukeratutakoak izanik.

Aukeraketa egiteko, honako baldintza hauek bete behar dira: probaren edukiak herrialde ugaritan barne hartuta egotea, probak aurretik garatu direnekin koherenteak izatea eta, era berean, etorkizunean matematikak eta zientziak irakasteko aurreikusten diren edukietan aurrera egitea. Gainera, kontuan hartu behar izan dute herrialde ugaritan aplikatzen dela eta horrek dakarren guztia (itzulpenak, proba pilotuak, eta abar), baita ere probaren edukiek ebaluazioa egingo zaien ikasleen ezaugarrietara egokituta egon behar dutela.

Emaitza nagusiak laburbilduta

Matematiketan eskurartutako emaitzak laburbilduz, Zeelanda Berriak, Esloveniak eta Italiak lortu duten puntuazio bera lortu da, hau da, nazioarteko batez bestekoaren gainetik geratu gara.

Zientzietan, berriz, Norvegiak, Italiak, Israelek eta Bulgariak lortu duten puntuazio bera lortu da, hau da, kasu honetan ere batez bestekoaren gainetik geratu gara.

Euskal hezkuntza sistemaren ekitateari dagokionez, ebaluazio honetan PISA txosteneko emaitzak berretsi dira.


TIMSS eta PISA probek ez dituzte emaitza berak erregistratu Zientzietan: TIMSS proban Euskadik batez bestekoa gainditu du eta PISA proban, berriz, ez da batez bestekora iritsi.

Kontuan hartu behar da TIMSSek curriculum a ebaluatzen duela funtsean, PISAk ordea ez. Bestalde, TIMSS proba DBHko 2. mailako ikasleei egiten zaie eta PISA, berriz, 15 urtekoei.


Emaitzak arloka eta ahuleziak

Zientzietako eta Matematiketako eduki-bloke edo arloen arabera TIMSS emaitzak garrantzitsuak dira, gure sistemaren ahulezien berri ematen digutelako, alegia: kimika eta geometria. Lurraren Zientziak eta Datuak arloetan lortu ditugu emaitzarik onenak.

Matematiketako emaitzak arloka Euskadin



Matematiketako emaitzak arloka Euskadin




Sistema konpentsatzailea


TIMSS ebaluazioaren arabera, gure sistema hobea da maila soziokultural baxuagoko ikasleentzat.

Nazioarteko batez bestekoarekin konparatuz hobeak dira eta Flandesekin (Belgika) konparatuz onenekiko diferentzia txikiagoa da.

Jarraian adierazitako grafikoan matematiketako emaitzak ikus ditzakegu gurasoen ikasketa mailaren arabera.



Beste horrenbeste gertatzen da Zientzietan.



Zer egin dezakegu ebaluazioen emaitzen aurrean?

Albertan esaten den bezala, "ondoriorik gabeko ebaluazioa ez da ebaluazioa", eta, jakina, ebaluazioaren azken helburua hobetzea da.

Ebaluazioa egin baino lehen, gure sistemari buruzko iritzi, datu partzial edota susmoak bagenituen, ebaluazioa egindakoan datu zehatzak dauzkagu.

Horrela beraz, sistemak bi mailatako erreakzioak izan beharko lituzke. Maila orokorrean, edozein ikastetxe, irakasle, zuzendari-talde edota administrazioko laguntza zerbitzu edo unitatek kontuan hartu beharko lituzke ebaluazioen emaitzak (lortutako errendimenduei buruzko txosten bana igorri zaie ikastetxe parte-hartzaileei) eta hausnarketa bat egin zer hobe daitekeen erabakitzeko.


Administrazioaren mailan, gure ahulezia eta gabeziak hobetzeko prestakuntza, antolamendu eta berrikuntza neurri estrategikoak inplementatu beharko lirateke.

5.3.8. Tratu txarra berdinen artean "Bullying-a" Euskadin.

Tratu txarrek sortutako alarma soziala dela eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak fenomeno hau aztertzeke konpromisoa hartu zuen. Hori dela eta, 2004. urtearen amaieran inkesta bat egin zen bigarren hezkuntzako 3.132 ikasleren artean. Tratu txarrei buruzko galdetegi horrek gure ikastetxeetako egoerari buruzko erradiografia bat eskaini zuen.

Emaitza nagusiak

Bullying-aren indizea %3,7koa da. Indize hori kalkulatzeko, inkestatuei azken astean gertatu zaizkien sei egoera hartzen dira: ostikoak ematen dizkirate, jipoituko nautela esaten didate, dirua emateko eskatzen didate, min egiten ahalegintzen dira, nire gauzak hondatzen ahalegintzen dira, ni jipoitzen ahalegintzen dira. Inkestatutakoen %96,3k ez du horrelakorik jasan, %3,7k bai.



Erasoaren erradiografia Bigarren Hezkuntzan

- Ikasle biktimen %11,4k ez dio inori ezer esaten.
- Tratu txarren portzentajeak altuagoak dira lekuko gisa egile gisa baino.
- Egile nagusiak "mutil batzuk" dira, gehienetan gela berekoak.
- Gelan gertatzen da batez ere.
- Gehien erreakzionatzen dutenak lagunak eta familia dira.
- Biktimak gehienetan mutilak dira neskak baino gehiago.
- DBHko 1 eta 2. mailako ikasleak eta errepikatzaileak dira tratu txarra gehien jasaten dutenak.
- Gutxiago gertatzen da udalerrri txikietan.


5.4. Atzerriko ikasle etorkinak artatzea

Geroz eta gehiago dira gure hezkuntza sisteman sartzen ari diren ikasle atzeritarrak, izan ere, eskabidea nabarmen handitu da eta azken urteotako erronkarik garrantzitsuena bihurtu da.

Espanian dauden atzeritar etorkinen portzentajea %4,4 ingurukoa da. Lehen Hezkuntzan kontzentratzen dira ikasle etorkin gehienak (%5,4), eta horren atzetik Haur Hezkuntzan (%4,7) eta DBHn (%4,3) biltzen dira gehienbat. Ildo beretik, alde handia dago autonomi erkidegoen artean, hartara, Lehen Hezkuntzan Madrilen %11,1 kontzentratzen da, Balearretan %10,1, Nafarroan %7,6 eta Errioxan %8,2.


EAEn atzerriko ikasleen portzentajea %3,13koa izan da 2003-04 ikasturtean aurreko ikasturteko %1,99aren aldean. Hortaz, %45,2 hazi da aurreko ikasturtearekin konparatuz, izan ere, Hezkuntza Ikuskaritzaren 2004ko maiatzeko datuen arabera, guztira 8.647 ikasle dago unibertsitate kanpoko etapetan. Estatu mailan gertatu bezala, hemen ere alde handia dago lurralde batzuetatik besteetara: Araban kontzentratzen da ikasle etorkinen portzentajerik handiena (%2,6), gero Bizkaian (%2) eta azkenik Gipuzkoan (%1,9).

Honela banatzen dira ikasle etorkinak aztertu ditugun azken bi ikasturteetan:




5.4.1. Ikasle etorkinen eskolatzea hezkuntza sareen arabera

Azken urteotako eskolatze datuek agerian uzte dute ikasle etorkin gehienak sare publikoan eskolatzen direla. Izan ere, ikasle etorkinen familiek zerbitzu publikoetara jo ohi dute, sarritan egoera ekonomiko txarrean egoten direlako. Jarraian adierazitako grafikoan sareen arabera ikasle etorkinen tasak ageri dira: %68 eta %71 bitartean daude sare publikoan eta %28 batez beste sare itunduan.



Hau da, ikasle etorkinen portzentajea sareen arabera aztertzean, ohartzen gara sare publikoko kontzentrazio maila ez dela batere jaitsi, nahiz eta eskaerak bideratzeko eta bi sareen arteko oreka bilatzeko ardura duten eskolatze batzordeak 2003-04 ikasturtetik funtzionatzen duten hiru lurraldeetan.


Ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasle etorkinen portzentajea lurraldeka. 2002-03 eta 2003-04 ikasturteak.



Nolanahi ere, bi sareen arteko orekarik handiena Gipuzkoan gorde da; Bizkaian zertxobait orekatzea lortu da, eta Araban, aldiz, hazi egin da sare publikoko parte-hartze kuota aztertutako azken ikasturtean.


5.4.2. Ikasle etorkinen eskolatzea hizkuntz ereduen arabera

Hizkuntz erduei gagozkiela, azken bi urteotan portzentajezko 3,7 puntu jaitsi da A ereduko matrikulazioa, eta B eta D erduetan, ordea, hazi egin da (lehenengoan 2,6 puntu eta bigarrean puntu bat).




Lurraldeak aztertzen baditugu, ikusiko dugu Gipuzkoan ikasle etorkin asko matrikulatzen dela B eta D ereduetan.

Ikasle etorkinak hizkuntz ereduaren eta lurraldeen arabera. 2003-04 ikasturtea.



Hizkuntz ereduaren eta sareen araberako banaketan aipagarria da B ereduaren nagusi dela sare pribatuan, esan bezala, Gipuzkoan ikasle etorkin asko matrikulatzen delako eredu horretan.




A ereduaren jaitzi egin da bi sareetan, %3,5 eta %4,1 hurrenez hurren. B ereduaren %2,4 hazi da sare publikoan eta %8,4 itunduan. Azkenik, D ereduaren ere haziz doa astiroago bada ere (%1,1 publikoan eta %1,0 pribatuan).

Eredu horietan hasiera-hasieratik (hau da, haur hezkuntzatik) sartzen ez diren eta euskaraz edo gaztelaniaz ez dakiten edota gaztelaniaz gutxi alfabetatuta dauden ikasleei laguntza baliabideak eskaini beharko litzaizkieke, eta matrikulazio batzordeen eginkizunen barruan sartuko litzateke hori.

5.4.3. Ikasle etorkinen eskolatzea etapan arabera

Etapen araberako ikasleen banaketa oso datu garrantzitsua da baliabideak planifikatzeko eta errefortzuak zehazteko orduan.

Ikasle etorkinen banaketa hezkuntza etapan arabera. 1999-2000.etik 2003-04.era.



Grafikoan ikus daitekeenez, ikasle etorkinen presentzia etapa guztietan handitu da, batik bat derrigorrezkoetan.

Azken urteotako hazkunde handi honen adibiderik argiena da etapa guztietako matrikulazioa %221 hazi dela. Aurrerago esan bezala, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dago kontzentrazio handiena. Izan ere, Batxilergora sartzeko DBHko graduatu titulua behar da, hortaz, eskakizun hori atzerakizun handia izan daiteke ikasle etorkin askok curriculum atzerapen edo desfase handia izaten dutelako edota EAEko hizkuntzak ezagutzen ez dituztelako. Bestalde, LHko matrikulazioa jaitsi egin da, beste sail eta herrialde batzuekiko lankidetzaren programei buru eman zaielako.


Ikasle etorkinak EAEn. Etapen araberako ikasle kopurua eta portzentaje gehikuntza aurreko ikasturtearekin konparatuz.

| | 2002-03 ikasturtea | | 2003-04 ikasturtea | |
|---------------|--------------------|----------------------|--------------------|----------------------|
| | Ikasleak | Δ Aurreko ikasturtea | Ikasleak | Δ Aurreko ikasturtea |
| Haur Hezk. | 1.257 | %60,7 | 1.618 | %28,7 |
| Lehen Hezk. | 2.509 | %41,7 | 3.790 | %51,1 |
| DBH | 1.578 | %34,5 | 2.556 | %62,0 |
| Batzilergoa | 263 | %27,0 | 366 | %39,2 |
| LH | 348 | %88,1 | 317 | %-8,9 |
| Etapa guztiak | 5.955 | %44,6 | 8.647 | %45,2 |

Ikasle etorkinen eta bertakoen portzentajea alderatzen badugu, ohartuko gara kopurua nabarmen hazi dela: 1999-00 ikasturtean %0,66 izatetik 2003-04 ikasturtean %3,13 izatera igaro da. 3,13 horren etapan araberako

banaketari dagokionez, handiagoa da derrigorrezko etapetan -hau da, Lehen Hezkuntzan eta DBHn-; dena den, Haur Hezkuntzan hazkunde handia antzeman da azken bi urteetan. Batxilergoko eta LHko derrigorrezkoaren osteko etapetan ez da batez bestekora iristen, ondoko grafikoan ikus daitekeen bezala:


Atzerriko etorkinen portzentajea EAEn. 2003 eta 2004 ikasturteak.



5.4.4. Eskolatzea erreferentziarako herrialdeen arabera

Jatorrizko herrialdeen banaketari gagozkiola, EAEk Afrikako eta Europako baino Latinoamerikako ikasle gehiago hartzen ditu.

Ikasle etorkinen kontinenteen araberako banaketa EAEn eta Espainian. 2002-03 ikasturtea (Iturria: I.T.E)




Kolonbiako ikasleak Estatuan baino askoz ugariagoak dira EAEn, Marokokoak, berriz, ugariagoak Estatuan.

EAEn eta Estatuan ikasle gehien dituzten bost herrialde. 2003-04 ikasturtea

| | | 2002-03 | | 2003-04 | |
|----|------------------|-------------------------|------------|-------------------------|--|
| | Herrialdea | % atzerritarrek guztira | Herrialdea | % atzerritarrek guztira | |
| 1 | Kolonbia | 22,6 | Kolonbia | 19,0 | |
| 2 | Ekuador | 13,0 | Ekuador | 13,3 | |
| 3 | Maroko | 10,2 | Maroko | 11,7 | |
| 4 | Argentina | 5,2 | Argentina | 6,1 | |
| 5 | Portugal | 5,2 | Portugal | 3,7 | |
| 6 | Brasil | 4,2 | Errumania | 4,5 | |
| 7 | Txina | 3,5 | Txina | 4,2 | |
| 8 | Errumania | 2,8 | Brasil | 3,9 | |
| 9 | Dominikar Errep. | 2,6 | Bolivia | 3,5 | |
| 10 | Venezuela | 2,3 | Venezuela | 3,0 | |


Taula horretan ikus daitekeenez, ikasle gehiago etorri da Boliviatik (255), baita ere Errumaniatik (169tik 333ra igaro da). Ez dago jatorriaren arabera alde handirik hiru lurralde historikoetan. Nolanahi ere, bitxikeri gisa aipa dezakegu Araban Saharako 70 ikasle eta Bulgariako 47 ikasle dagoela eta Gipuzkoan Kubatik etorritako 58.

Ikasle etorkinen ama hizkuntzari dagokionez (oso garrantzitsua ikasle hauen heziketarako), goiko taula hori oso argigarria bada ere, grafiko bat aurkeztuko dugu jarraian:




5.4.5. Ikasle etorkinen eskolatzea Helduen Hezkuntzan

HHEko ikasleen kopurua hazi egin da oro har, baina kontuan hartu behar da hazkunde hori ikasle etorkinen etorrerari zor zaiola batik bat.




Hartara, bada, azken urte honetan lurraldeen arabera ikasleen banaketa konparatzeko ikasle etorkinak eta ikasleen multzo osoa hartzen baditugu, ikusiko dugu ikasle etorkinen kopurua nabarmen hazi dela.

Ikasle etorkinen portzentajea ikasleen multzo osoarekin konparatuz. 2003-04 ikasturtea



Grafikoan argi ikusten da HHE zentroetako ikasle etorkinak asko ugartu direla eta, hortaz, komeniko litzatekeela zentro horien eginkizuna birplantatzea.

Ikasle etorkinen banaketa jatorrizko herrialdearen arabera:



Ugarienak Marokoko ikasleak dira, eta atzetik datorzkio Txina, Aljeria eta Brasilekoak. EAEn etorkin gaztelaniadunak gehiengoa dira, baina, irakaskuntza arautuetan ikus daitekeenez, zentro hauetan etorkin gaztelaniadun gutxi dago. Grafikoko 10 herrialde horien sailkapenean Kolonbia baino ez da ageri. Horrek esan nahi du HHEn matrikulatutako ikasle etorkinen helburua gaztelania ikastea dela. Horrela beraz, HHEn matrikulatutako etorkinen %88,2 alfabetatzeko matrikulatzen dira eta %11,7 bakarrik DBHko titulua lortzeko.

Lurralde arteko desberdintasunei dagokienez, Araban titulazioa edo alfabetazioa eskatzen dutenen arteko desberdintasuna txikiagoa da (%23,3 eta %76).

5.5. Balorazioak eta proposamenak

Kontseilu honek sistematikoki eta behin baino sarriago aztertu du *ikastetxeen zuzendaritzari* buruzko auzia, zuzendari hautagaien eskasia eta txandatzeko-maila handiegia mahaigaineratzeko xedez; ildo horretatik, jardunaldi batzuk antolatu zituen 2001ean, eta argitalpen bat atera zuen han jasotako ondorioak biltzen dituena.

Harrezkero ez dira aldatu zuzendaritza taldeen lan baldintzak, baina kontuan hartu behar da 2004-05 ikasturte hasieran Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei buruzko ebazpen bat eman zela, eta 04/09 irizpenean esan genuen bezala, ebazpen horrek mugatu egiten duela 228/2002 dekretuak zuzendaritza taldeei esleitutako ordutegia. Guk gure aldetik, ebazpen horrekin ados ez geundela adierazi genuen bere egunean.

LOCE argitaratu zenean, halako indefinizio egoera bat sortu zen, ez baikenekien arau hori aplikatzeko premiarik egongo ote zen. Ikastetxe publikoetako hezkuntza erkidegoaren nahiarekin bat etorriz, zeina hautaketa sistemaren alde agertu baita beti, Kontseilu honek uste du Administrazioak ere nolabait parte hartu beharko lukeela ikastetxeen erabaki garrantzitsuetan, hartara, bi alderdiak konprometituko lirateke halaberrez.

Horrela beraz, zuzendaritza proiektuak erantzukizun bikoitza ekarriko luke, hots, ikastetxean sartzeko den zuzendaritza taldeak proiektu batzuk gauzatzeko konpromisoa hartuko luke, baina Administrazioak bere aldetik proiektu horiek gauzatzeko baliabideak eskaini beharko lituzke. Nolanahi ere, eredu hori urrun geratzen zaigu oraindik. Autonomia markoa ez da garatu.

Gauzak horrela, Euskadiko Eskola Kontseiluak ikastetxe publikoetako zuzendaritza funtzioak dakartzan premiei buruzko ikerketa bat egin zuen 2004an eta 05/02 irizpenean argitaratu zen eranskin gisa. Irizpen horretan adierazi genuen karguen berriztatze prozesu bat aurrera eramateko, zuzendaritza lanaren baldintzak hobetu behar direla: hasierako prestakuntza eta etengabea, ordutegi aukera, pizgarri ekonomikoak eta aintzatespen profesionala bultzatzeko neurriak.

Hezkuntza berrikuntzari gagozkiola, Kontseilua zain geratzen da lehenasunezko bost ildoetan oinarrituriko Sailaren hirurteko programaren ebaluazioa egin arte, 2005-06 ikasturtean bukatuko da eta.

Data horretara iristeko urtebete baino falta ez denean, ohartu gara arazo kezkarri bat sortu dela ingelesaren sarrera goiztiarraren esperientziaren inguruan, izan ere, esperientzia horrek proposatzen duena zera da, ingelesa 7 urterekin ikasten hasi beharrean 4 urterekin hastea. Azken ikasturteotan, berrikuntza proiektu edo esperientzia hau ikastetxe publiko eta pribatu gehienetara hedatu da. Esperientzia hau aurrera eraman ahal izateko, prestakuntza proiektuak bultzatu ziren, denborarekin, berrikuntza proiektu bilakatu direnak.

Esperientzia hau biziki interesgarri eta garrantzitsua bada ere, behin ikastetxe publiko eta pribatu gehienetara hedatu denean eta, beraz, lehen fasea bete ostean, ezeztatu egin dira aholkularitzako aparteko baliabideak. Izan ere, ezin da berrikuntza proiekturik aurkeztu adin tarte horretan (4

urtetik 8 urtera), prozesu hori dagoeneko burutua dagoela ulertzen delako. Kontseilu honek uste du, programa orokorki ebaluatzen ez den bitartean, babes eta laguntza indibiduala eman behar zaiela ikastetxe parte-hartzaileei.

Aurreko batean ere aipatu genuen esperientzia honetan parte hartzen duten irakasleek gela gehiegiren ardura daukatela, eta beraz, aparteko ahalegina egin behar dutela, baina jakina, horrek arrisku bat dakar, alegia: desmotibazioa eta irakaskuntzako kalitatea gutxitzea. Berriro aztertu beharko litzateke espezialitate hau irakasten duten ikasleek zenbat talde dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, sei talde baino gehiago izan ez dezaten.

Euskadin definitu dugun bezalako sistema eleanitz batean, non ingelesa Haur Hezkuntzatik hasita irakasten baita, irakasleen prestakuntza eta laneratzeko aukera aztertu beharko litzateke, ingelesaren normalizazioa errazteko.

Aitzitik, berrikuntza proiekturik hedatuenak 8 urtetik aurrerako ingeles eskolei buruzkoak dira, eta lehenetsuneko bost ildoen %40 hartzen dute. Prestakuntza proiektuen aldean, berrikuntza proiektuak nabarmen hazi dira aurreko ikasturtearen aldean.

Hizkuntza normalkuntzako proiektuak indartu egin dira Ulibarri Dekretuari esker (EHAA 03/12/31), eta gero eta gehiago dira irakasleak kontratatuzko (proiektuaren koordinaziori begira) finantzaketa eskuratzen duten ikastetxe parte-hartzaileak, batik bat sare pribatukoak.

Ikastetxeen ebaluazioari dagokionez, 2003-04 ikasturteko graduatuen portzentajea nabarmen handiagoa da, %86koa alegia (aurreko ikasturtean baino lau puntu gehiago).

Bestalde, EAEk parte-hartze esanguratsua izan du azken urteotako nazioarteko ebaluazioetan. Ebaluazio horietatik eratorritako lehenbiziko datuek alderdi bi nabarmentzen dituzte: batetik, emaitzak ez dira bereziki aipagarriak eta, bestetik, hutsune batzuk antzeman dira zenbait alorretan.

Nolanahi ere, bada elementu positibo bat, hots, emaitzen homogeneitatea, gure hezkuntza sistemaren ekitate mailaren adierazgarri dena. Ez gara datu zehatzagoetan sartuko, dagokion epigrafean aztertuko delako gai hau.

Ebaluazio horietatik ondorioztatu da eskola-porrotarekin zerikusia duen faktore nagusia familiaren maila sozioekonomikoa eta kulturala eta seme-alabari egiten zaion jarraipena dela. Administrazioak kontuan hartu beharko du faktore hori eta, ildo horretatik, baliabide gehiago bideratu beharko dizkie defizit handiagoak dituzten haur eskolei; era berean, aintzat hartu beharko du baliabideak zuzkitu beharko dituela atal instrumentaletako ikaskuntza goiztiarretako ikasleek oinarrizko trebetasunak eskura ditzaten.

Ikasle etorkinen eskolatzeari gagozkiola, Euskadiko Eskola Kontseiluak jardunaldi batzuk antolatu zituen 2003ko urtarrilean, eta Hezkuntza Sailak ikasle etorkinentzako harrera plan berezi batean lanean ziharduela iragarri

zuen orduan. Harrera plan horrek zenbait jarduera-ildo eta orientabide planteatzen zituen: etorkinari euskal hezkuntza sistemari eta onarpen eta eskolatze prozesuei buruzko informazioa ematea; material bereziak sortu eta egokitzea eta irakasleak prestatzea; beste administrazio zerbitzu batzuekiko koordinazio eta lankidetzak; ikasle etorkin kopuru handiak dituzten ikastetxeen kalitatea hobetzea.

Hezkuntza Sailak hainbat ekimen bultzatu baditu ere eta ikastetxe eta irakasle batzuek lan eskerga egin badute ere, uste dugu dagoeneko onarturik egon beharko litzatekeela Ikasle Etorkinentzako Arreta Plana, alor honetako premiei erantzuteko adinako aurrekontua zuzkitu beharko litzaiokeelarik. Gure ustez, ez da behar adina baliabide eta bitarteko dituen planik garatu.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren 2003ko otsaileko txostenak, Autonomi Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen Salamancako Jardunaldietan aurkeztu zenak, zenbait hobekuntza proposamen planteatzen ditu, gure ustez oraindik ere baliagarri direnak.

Eskura dugun dokumentazioa eta egungo egoera kontuan izanik, hauek dira Kontseilu honen hausnarketak:

- Ikasle guztien eskola, gizarte eta kultur integrazioa lortzea da prozesu ororen helburu nagusia. Helburu hori lortzeko bidean aurki dezakegun oztopoetako bat zera da, ikasle hauek ikastetxe jakin batzuetan kontzentratuta daudela, eta horrek ghettoak sortzeko arriskua ekar dezakeela. Eskolatze batzordeak sortu badira ere hiru lurralde historikoetan, oso eragin txikia izan dute, kontuan izan behar baita epez kanpoko matrikulazioetara mugatzen dutela beren jarduera eremua. Aztergai dugun aldi honetan, ez dago aldaketarik sareen arabera banaketan, hala ere, desberdintasunak antzeman dira lurraldeen artean. Horrela beraz, Gipuzkoan ez dago aldaketarik sareen arteko banaketan (%54 publikoan); Bizkaian hiru puntu jaitsi da sare publikoko ikasleen portzentajea (%74,6); eta Araban 2,5 puntu igo da sare publikoko ikasleen kopurua azken ikasturtean (%80,8).
- Bestalde, ikasle etorkinen artean errealitate oso desberdinak, eta batzuetan kontrajarriak, daudela ohartarazi beharrean gaude. Hartara, bada, mendebaldeko herrialde garatuetatik datozen ikasleek (Europa, Kanada, AEB, eta abar) eta beste herrialde batzuetatik datozenek oso arazo desberdinak dituzte. Azken hauen gehieneko handi bat ikastetxe publikoetan matrikulatzen da. Hortaz, ezin ditugu denak zaku berean sartu, okerreko diagnostiko bat egiteko arriskuan eror gaitzkeelako; horrela beraz, azterketa xeheago bat egin beharko genuke.
- Ereduen kasuan, berriz, portzentajezko 3,7 puntu gutxiago erregistratu da A ereduan azken bi urte hauetan; B eta D ereduak, ordea, 2,6 eta 1,0 puntu igo dira hurrenez hurren. Nolanahi ere, ikasle etorkinik gehienak A ereduan matrikulaturik daude; lurraldeen arabera azterketa egiten badugu, ohartuko gara Araba eta Bizkaian daudela gehien, Gipuzkoan A eredukoak %21,8 direlako, B eredua nagusi den bitartean (%44,2)
- Ikasle etorkinik gehienak A ereduan matrikulaturik daudenez, kontzentrazio handia dago ikastetxe publikoetako A ereduko unitate

kopuru murrizetan, hartara, segregazioa eta ghettoak sortzen dira; ikastetxe pribatuetan ez da halakorik gertatzen, askoz ikasle etorkin gutxiago dagoelako eta A ereduko unitate gehiago dutelako.

- Eskolatzeko-batzordeen lana aztertu eta indartu beharko da, baita ere bestelako neurri batzuk inplementatu, sare eta eredu arteko oreka bilatzeko, baina, nolana ere, ezinbestekoa da familia eta ikastetxeen adostasun eta parte-hartzea.
- Gure hezkuntza sisteman hasieratik (esan nahi baita Haur Hezkuntzatik) sartzen ez diren ikasle etorkinek curriculum atzerapen edo desfase handia izaten dute, beste herrialde batzuetako hezkuntza sistemen exijentzia mailak desberdinak direlako, eta batzuetan gazte eskolatu gabeak direlako. Hezkuntza Saila hasia da jada ikastetxeentzako errefortzu estrategiak bideratzen, hala ere, etorkizunari begira, planifikazio orokor bat beharko dugu, eta planifikazio orokor horrek neurri batzuk finkatu beharko ditu ikasle etorkinen integrazioa errazteko, beti ere beren kultur bereizgarriari zor zaien errespetua kontuan izanik.
- Hizkuntza funtsezkoa da integrazioarako. Ikasle etorkinek egoera konplikatu aurkitzen dute bi hizkuntza ditugulako, eta zailtasun hori are handiagoa da B eta D ereduetan, non euskara baita irakas-hizkuntza; gainera, kontuan hartu behar da ikasle etorkinen ingurunean euskara gutxiengoa dela. Arazoa larriagoa da gaztelaniaz bestelako famili hizkuntza dutenentzat. Gauzak horrela, gai honi buruzko ikerketa eta azterketa gehiago egin beharko lirateke, gogoan izanik zein den derrigorrezko hezkuntzaren azken helburua, alegia: komunikatzeko adinako ulermen eta adierazpen maila izatea. Hortaz, ikasle etorkinak B eta D ereduetan matrikulatzea lortu beharko genuke, gure erkidegoan hobeto integra daitezten, hain zuzen ere, eredu horiek direlako gure artean nagusitzen ari direnak. Aurreko paragrafoan esan bezala, apustu hau aurrera eramateko, behar besteko errefortzu eta baliabideak bideratu beharko dira.
- Plan orokor baten barruan, oso garrantzitsua izango litzateke irakasleak alor hauetan prestatzea: hezkuntza interkulturala, bigarren hizkuntzen irakaskuntza eta curriculum dibertsifikazioa. Ildo beretik, alor horiei buruzko prestakuntza berezia eskaini beharko litzateke Irakasle Eskoletako eta Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroetako ikasketa planetan.
- Helduen Hezkuntzako ikastetxeek harrera zentro gisa jarduten dute. Kontua ez da gizarte zerbitzuen lana egitea, baina irakasleek ezin diote ez entzun egin eskabide honi, eta premia horiek dagokien zerbitzura bideratzeko ahalegina egin behar dute gutxienez. Helduen Hezkuntzako ikastetxeetara doazen ikasle etorkinei harrera egingo dieten irakasleek ikasle horien premia eta gabeziei erantzuteko moduko prestakuntza eta ezaugarriak izan behar dituzte.
- Bukatzeko, datu kuantitatibo ugari badugu ere, komeniko litzateke ebaluazio kualitatiboagoa egitea -integrazio maila, emaitza

akademikoak, zailtasunak, eta abar-, sortzen diren arazo eta gabeziei aurre egin ahal izateko.